

Topalekua

69zk. 2011ko urria

octubre 2011 - n.º 69

orr. 1 eta 4: *Gizarte Kontseiluak ehu bazkide gisa onartu du COCtourGUNEn*

orr. 2 eta 3: *Euskadi, autonomia erkidegoen buruan lan biztanleriaren hezkuntza mailaren arabera*

orr. 4: *CONFEBASKe ordezkari berriak izango ditu Kontseiluan*

GIZARTE KONTSEILUAK EHU BAZKIDE GISA ONARTU DU COCtourGUNEN



Iragan urriak 5ean Bilbon ospatu zen EHuko Gizarte Kontseiluko Osoko Bilkurak onartu zuen Euskal Herriko Unibertsitateak Turismoko Kooperazio-ikerketarako Zentroan (CICtouGUNE) parte hartzea. Zientzia eta teknologia arloko azpiegitura horrek ezagutza bikaintasuna sortzea du xede, eta turismoaren industria ezagutzaren sektore bihurtzea, teknologiaren transferentzia sus-

(4. orrietan jarraitzen du)


EUSKADI, AUTONOMIA ERKIDEGOEN BURUAN LAN BIZTANLERIAREN HEZKUNTZA MAILAREN ARABERA

Euskadi (% 34,8), Madril (% 33,4) eta Nafarroa (% 30,6) dira, orden horretan, goi ikasketak dituzten biztanle aktiboen portzentaje handienak dituzten autonomia erkidegoak. Gainera, Euskadin lan egiteko adinean dauden % 65,2 derrigorrezkoen ondorengo ikasketak burutzen ari direla ere goraipatu beharra dago. Espainiar batez bestekotik ia hamar puntu gorago (% 55,5), Banca Fundazioak eta IVIEak burutzen duten Giza Kapitalaren eta Enpleguaren Azterketaren arabera.

Azterketa honek agerian utzi du beste erkidego aurreratu batzuetan ere alde dagoela lan-biztanleriaren beharrezkoak ez diren ikasketei dagokienez. Horrela, Madril, adibidez, derrigorrezkoen ondorengo ikasketak dituzten biztanleen bosten batek bakarrik zuen LH I ikasketak edo gradu ertainekoak. Euskadin, ordea % 48k. Goi ikasketak dituztenen artean, LH II ikasketak edo goi mailakoak zituztenek (% 38) Madrilgo Erkidegoak baino (% 18) 20 puntu osatzen zuten.

6. grafikoa. Langabezia tasa autonomia erkidegoak. 1994 eta 2010


*Bigarren hezkuntza ondorengo ikasketak dituzten biztanleak**



* BBB/UBI, Batxilegoa, LH I eta Gradu Ertaineko Hezkuntza Zikloak. Iturria: Banca Fundazioa-Ivie eta azterketa bera.

7. grafikoa. Autonomia erkidegoen langabezia tasa. 1994 eta 2010

*Goi heziketa duten biztanleak**



* LH II, Goi Mailako Heziketa Zikloak eta unibertsitateko ikasketak. Iturria: Banca Fundazioa-Ivie eta azterketa bera.

Enpleguari dagokionez, azterketa beraren arabera, 2010ean Espainiako langabezi tasa txikiena zuen Euskadik, biztanleria osoa (% 10,5) eta Nafarroa (% 11,8) kontuan hartuta zein hiru taldeak ikasketak mailaren arabera kontuan hartuta.

“Euskadik du tituludunen artean langabezia-portzentaje txikiena”

Foru-lurraldei dagokienez, heziketa gutxien zutenen arteko langabezia tasa % 15 ingurukoa zen. Estatuan, % 27,3 aldiz. Azterketa honetako datu oso garrantzitsu baten arabera, Euskadin goi ikasketak zituztenen artean langabezia % 7,3 besterik ez zen. 1994ean, aldiz, krisialdi garaia hura ere, goi ikasketak zituzten biztanleen % 22,6 zegoen langabezia.

“1994 eta 2010 bitartean, ikasketak-maila asko igo zen sektore guztietan”


Azterketak agerian utzi du eraikuntzan izan ezik harreman estua dagoela ikasketak mailaren eta lanean hastearren artean. Horrela, nekazaritzan ere, enplegu kualifikatuak azken urteotan au-

rerrantz egin du eta, gaur egun, % 27k derrigorrezkoen ondorengo beste ikasketak ere baditu.

Hirugarren sektoreak, Euskadin biztanleria aktiboaren ehuneko 70 inguru osatzen duena, heziketa maila altua du, eta baita industriak ere. Izan ere, zerbitzuetan la-


11. grafikoa. Zerbitzuetan lan egiten dutenen ikasketak-maila. 1977-2010

Ehuneko banaketa



Iturria: Banca Fundazioa-Ivie.

12. grafikoa. Zerbitzuetan lan egiten dutenak ikasketa mailen arabera. 2007 eta 2010



Iturria: Bancaja Fundazioa-Ivie.

nean diharduten hamar bakoitzeko lauk unibertsitateko titulua dute eta industrian lanean diharduten ehuneko 60


“Eraikuntza da ikasketa-maila txikiena duen sektorea”

industria sarean ez du ehuneko 7,5 baino gehiago hartzen, eta hezkuntza profil pobreenetariko bat du, oro har, langileen ehuneko 60 inguruk ez baititu derrigorrezko ikasketak baino.

inguruk derrigorrezkoen ondorengo ikasketak dituzte.

Eraikuntzari dagokionez, euskal in-

4. mapa. Zerbitzuetan lan egiten duten langileen portzentajea. 2011ko II. hiruhilekoa



Iturria: INE eta azterketa bera.

Azterketak espainiar eskualde guztiek azken hamarkadetan lortu duten hezkuntza mailaren hobekuntza utzi du agerian. Gutzien hobetu duten erkidegoen artean daude Galizia, Murtzia, Andaluzia, Gaztela-Mantxa eta Andaluzia, non derrigorrezko bigarren hezkuntza biztanleen % 60,8k eta % 67,3k bitartean gaintitu ez duen. Espainia osoari dagokionez, % 55,5k du derrigorrezko hezkuntza edo gutxiago, % 24,3k goi mailako ikasketak eta % 20,2k derrigorrezkoen ondorengo bigarren mailakoak.

UNIVALUE VALORIZACIÓN EMPRESA ABIAN DA

Irailaren bukaeran Bilboko instalazioak inauguratu zituenean jarri zen martxan Univalue Valorización enpresa, G-9 Taldeko unibertsitateek sortutako sozietatea, EHUz gain Kantabriako, Gaztela-Mantxako, Extremadurako, Balear Uharteetako, Errioxako, Nafarroako, Oviedoko eta Zaragozako Unibertsitateek osatzen dutena. Zentro bakoitzak lortutako patenteen kudeaketaren bitartez teknologia transferitzeko egingo du lan.

Enpresa-proiektu horren asmoa —EHUren ekimenaren ondorioz sortua— patenteen berrikuntzan, transferentzian eta balorizazioan kudeaketa profesional eta partekatua garatzea da, berrikuntza bihur daitekeen ikerketaren emaitzak merkaturatzeko, autofinantzaketa eskuratzeko eta merkatuaren ezagutza sakona duten pertsona trebatuen talde bat sortzeko. Horrela, unibertsitate txiki eta ertainek, sortzen duten ezagutza hobeekin transferitzeko egitura sendorik (Ikerketa-emaitzak Transferitzeko Bulegoak) ez izateagatik, gaur egun dituzten arazoak konponduko lirateke, orobat autofinantzaketa hobetuko litzateke teknologia eta ezagutza merkaturatze bidez. Azken batez, Univalueren betekizuna G-9 unibertsitate-taldeak sortutako unibertsitate-ikerketaren ezagutzak eta emaitzak kanalizatzea, horien balioa kalkulatzeko, merkaturako kokapen-sektoreak identifikatzeko, sustatzea eta merkaturatzea da.

Unibertsitateen 9 Taldearen (G9) egungo presidentea Euskal Herriko Unibertsitatearen errektorea da, **Iñaki Goirizelaia**. Honek, inaugurazioan adierazi zuenez, “unibertsitate modernoko erronketariko bat ezagutza transferitzeko bideak zehaztea da: unibertsitateko ikerketaren produktua ingurune sozioekonomikora erraztasunez eta modu erregularrean iristea eta, ondorioz, erakundeen, enpresen eta beste gizarte erakundeen lana hobetzen laguntzea. Univalueren asmoa prozesu hori dinamizatzeko erreminta izatea da eta ziur gaude laster izango ditugula emaitzak”.

Horretarako, Univaluek Bilbon du egoitza. Han egingo dute lan ondo trebatutako profesionalak, elkarteak eratu duten bederatzi unibertsitateetako ezagutza-arloen egungo eskaerei zein etorkizunekoei erantzunak emateko. **www.univalueg9.com** web orriaren bitartez ere jarri daiteke harremanetan.

EHUko Gizarte Kontseiluak proiektu berritzaile honetan parte hartzea onetsi zuen 2010eko urriaren 6ko Osoko Bilkuran, sortzen duten jakintza transferitzeko beharrezkoak diren egiturak ez dituzten tamaina ertaineko unibertsitateentzat oso interesgarria iruditu baitzitzaion.

CONFEBASKEK ORDEZKARI BERRIAK IZANGO DITU KONTSEILUAN

Euskal Enpresen Confebask Erakundeak, EHUren Gizarte Kontseiluaren 24 kideetako hiru aukeratzan dituen, Federico San Sebastián, Asier Aloria eta Juan Antonio Sánchez Corchero esleitu ditu postu horietarako. Urriaren 5ean egin zen Osoko Bilkuran berriro zituzten kideak.

Horrez gain, eta kontseilari berriak barneratu ondoren, Kontseiluaren Presidenteak, José Manuel de la Sen, gizarte ordezkarietako erakundearen Batzorde Ekonomikoaren presidentzia Federico San Sebastiánari uztea erabaki du.

San Sebastián doktorea da Zuzenbidean eta MBA Inside Deustuko Unibertsitatearengatik, Petronorrekoko Industria Erlazioen Zuzendaria eta Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaria izan da eta goi mailako hainbat kargu bete izan ditu Iberdrolan. Egun, Iberdrola AIE Dorre-kontseiluaren Presidentea eta IBV korporazioko Kontseiluaren Idazkaria da. Bilboko Merkatal Ganbararen 2. presidenteordea ere bada, eta CEBEken Batzorde Beteazlearen bokala.

Asier Aloria Industria Ingeniaria da, Enpresen Antolaketa espezialitatearekin, Bilboko Industria Ingeniaritzako Goi Eskolarengatik. Gatik Consultoresen egin du lan aholkulari gisa, eta egin Confebasken Trebakuntza Teknikaria da. Han, Europako hainbat proiektutan hartu du parte eta Lanbide Heziketako Euskal Egitasmoa egiten hartu du parte. LHko Euskal Kontseiluko kidea, Lanbideren Administrazioako Batzordearen kidea eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren kidea ere bada, besteak beste.

Sánchez Corchero, bestetik, Gasteizko Irakasleen Unibertsitate-eskolaren irakasle titulua du, Lan Arriskuen Prebentzioiko Goi Mailako Teknikaria da eta Pymeen Administrazio eta Zuzendaritzan Masterra du. Bere karrera profesional zabalean, hainbat erakundetan egin du lan, horien artean: CECAP Euskadi, Ajobask, Confebask, Arabako Merkatal Ganbara, SEA, etab., eta Caja Vital Kutxaren presidenteordea eta ADALID Korporazioaren Kontseilari Ordezkariera ere izan da. Europa Institutuaren Zuzendari Nagusia da.



Asier Aloria



Juan Antonio Sánchez Corchero



Federico San Sebastián

(1. orritik dator)

tatzea eta ikerketaren emaitzak merkatuan erabiltzeko eta sektoreari lehiakortasun are handiagoa ematea ditu helburu.

Euskal Herriko Unibertsitatea zentro horren bazkide izateak harreman egonkorreko programetan parte hartzea eragingo du eta, ondorioz, turismo arloan ikerketa estrategikoko parte hartzea sustatuko du, ikerketa-gaitasuna areagotuko du eta ezagutzak sektorerara transferituko ditu, CICTourGUNEra, bereziki.

Ikerketa zentro horrek egun 20 pertsona ditu lanean, eta hainbat enpresatan, Zientzia, Teknologia eta Berrikunt-

zaren Euskal Saretik datozen ikerlarien gaitasun zientifikoak eta teknologikoak eta bere jarduera-lerroetan kolaboratzen duten Herri Administrazioaren laguntza ditu.

Kontseiluaren Osoko Bilkurak “Giza Zientziak (Esperimentziaren Gela)” graduaurreko titularen tasak ere onartu zituen 2011-2012 ikasturterako.

Azkenik, Osoko Bilkurak EHUK eskatutako hainbat aldaketa onartu zituen aurrekontuetan eta irakasleei eta ikerlariari esleitutako hainbat ordainsariren aldaketen inguruan ebatzi zuen.